



ALKATETZAREN DEKRETUA

EZTITXU MUJIKA MARIEZKURRENA, ZALDIBIAKO UDALEKO ALKATEAK,
Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK,

Covid-19ak sortu duen alarma egoera dela medio 2020rako Zaldibiako udalak zuen egutegi fiskala ezin izan da bete, horregatik, egutegi fiskal berria onartzea proposatzen da, batik bat ordaindu behar dutenei erraztasunak emateko.

EGUTEGI FISKAL BERRIA

URA

URA	1.HIRUHILABETEA	2.HIRUHILABETEA	3.HIRUHILABETEA	4.HIRUHILABETEA
Ordainketarako borondatezko epea	Ekainaren 1etik Uztailaren 15era	Irailaren 1etik Urriaren 15era	Azaroaren 15etik Abenduaren 31ra	Otsailaren 15etik Martxoaren 31ra
Helbideratutako errezioben kobrantza	Ekainaren 30ean	Irailaren 30ean	Abenduaren 15ean	Martxoaren 15ean

HONDAKINAK

HONDAKINAK	1. SEIHILABETEA	2. SEIHILABETEA
Ordainketarako borondatezko epea	Ekainaren 1etik Uztailaren 15era	Azaroaren 15etik Abenduaren 31ra
Helbideratutako errezioben kobrantza	Ekainaren 30ean	Abenduaren 15ean

** Merkataritzako saltoki txikiak, ostalaritza eta turismo-sektoreko jarduerak ixteko aginduaren ondorioz itxita egon direnei, ez zaie ur eta hondakin tasarik kobratuko jarduna etenda izan duten bitartean.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA (Zirkulazioa)

Helbideratutakoak kobratuta daude. Ordaintzeko falta direnentzat borondatezko epearen luzapena egingo da: uztailaren 30era arte.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA (IBI)

Borondatezko aldian ordaintzeko epea abuztuaren 1etik irailaren 15era atzeratu du Foru Aldundiak.



Zaldibiako Udala

2020IGAP0022

Era berean, proposatzen da egoera honen aurrean ordainketak zatikatu eta atzeratzeko borondatea eta malgutasuna izango duela Udalak, kasuan kasu. Beraz, tasak ordaintzeko atzerapena edo zatikapena eskatu nahi duten herritarrek, Udaleko Kontuhartzailetza Sailera jo behar dute, betiere ordainketarako borondatezko epea amaitu baino lehen.

Indarreko legediak ematen didan aginpideaz baliaturik,

ERABAKI DUT

LEHENA: Aurrean idatzitako 2020ko egutegi fiskal berria onartzea

BIGARRENA: Egoera honen aurrean ordainketak zatikatu eta atzeratzeko borondatea eta malgutasuna izatea onartzea, kasuz kasu eskaerak aztertu ondoren.

HIRUGARRENA: Akordio honi behar duen publizitatea ematea, Zaldibiko udaleko web orrian eta informazio kanaletan argitaratuz.

ALKATEA